

## IKASGAIAREN IZENA: KULTURA ZIENTIFIKOA

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>MINTEGIA: FISIKA-KIMIKA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Gure eguneroko bizitzan, etengabe ditugu inguruan zientziaren esparruarekin zerikusia duten egoerak eta hitzak, zuzenean eragiten digutenak (elikagai transgenikoak, nanoteknologia, aztarna ekologikoa, drogak, zulo beltzak...). Egungo mundua ulertzeko, herritarrek oinarritzko kultura zientifikoa izan behar dute; hau da, alfabetizazio zientifikoa lortu behar dute
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	<p><b>Unibertsoa:</b> • Unibertsoaren jatorria. • Unibertsoaren antolaketa. • Izarren bilakaeraren faseak. • Eguzki-sistema: eraketa eta ezaugarri nagusiak. Lurra, planeta biziduna.</p> <p><b>Bizi-kalitatea:</b> • Osasuna. • Gaixotasun motak: infekziosoak eta ez-infekziosoak. • Gaixotasun garrantzitsuenen adierazle, kausa eta tratamendu ohikoenak. • Drogak: droga motak. Organismoan dituzten ondorio nagusiak eta drogen kontsumoak dakarren arriskua.</p> <p><b>Aurrerapen teknologikoak eta ingurumenean eragiten duten inpaktua:</b> • Mugatuak diren baliabideak gehiegi ustiatzea: airea, ura, lurzorua, izaki bizidunak eta energia-iturriak. • Hidrogeno-pila: etorkizuneko energia-iturria. • Inpaktuak: kutsadura, basamortutzea, hondakinak ugaritzea eta biodibertsitatea galtzea. Klima-aldaketa. Pobrezia eta gosea. • Arrisku naturalak. Hondamendi ohikoenak. Arriskuak ugaritzen dituzten faktoreak. • Planeta mugatu batean hazkunde mugagabea izatearen arazoa. Iraunkortasun ekonomikoko, ekologikoko eta sozialeko printzipio nagusiak. Nazioarteko konpromisoak eta konpainia multinazional handien eta herritarren erantzukizuna. • Euskal Herriko ingurumen-arazo nagusiak. Ingurumena: prebentzioa, kontserbazioa, leheneratzea eta hobetzea. Kontsumo eta garapen iraunkorra, aztarna ekologikoa.</p> <p><b>Berrikuntza. Material berriak:</b> • Zenbait material natural. Metalak; arriskuak, korrosioa de la eta. Papera eta deforestazioaren arazoa. Bioerregaiak eta gosearen arazoa. • Garapen zientifiko-teknologikoa eta kontsumoaren gizartea: materialak agortzea eta behar berriak agortzea, medikuntzatik hasi eta aeronautikan buka. • Zientziaren eta teknologiaren erantzuna. Material berriak. Teknologia berriak: nanoteknologia. • Materialen erabileraren ingurumen-azterketa eta energia-azterketa: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Hondakinak. • Euskal Herriko berrikuntza-zentro nagusiak.</p>
<b>METODOLOGIA</b>	Gaiaren aurkezpena: oinarri minimo bat ikusi ostean, gaien zentratutako testu zein bideoak ikusi eta aztertuko dira, iritzi kritikoa landuaz. Era berean, gai bakoitzean, lan edota proiektu bat garatuko da (ppt, bideo edizioak etab.). Gai bakoitzean, kontrol txiki bat egingo da.
<b>EBALUAZIOA</b>	Landutako testuen iritzi kritikoak, eta batez ere gai bakoitzean garatutako lana edo proiektuak izango dute pisu gehiena.
<b>OHARRAK</b>	Ordenagailu bidezko lanetarako, asteko hiru klaseetatik bi ordenagailu gelan egongo gara.